



## ANTZERKI TOPAKETAK umeak eta gazteak 2010

Euskarabila eta Basauriko Kultur Etxearen arteko elkarlanaren fruitu den **ANTZERKI TOPAKETAK-umeak eta gazteak** egitasmoak laugarren urtea beteko du 2010ean.

Ondo dakigu antzerkigintzaren bidez ume askok lotsa, harremanetan hasteari eta ozenki mintzatzeari beldurra kentzeaz gain, irudimenaren askapenaz gozatzeko edota norberaren gorputza ezagutzeko aukera izaten dutela.

Bestetik, jakina da zer nolako lana burutzen duzuen ikastetxeetan eta zer nolako ahalegin handiak egiten dituzuen umeek euskaraz hitz egin dezaten, hizkuntza naturala, ez-formala gara dezaten.

Bi arrazoi horiek bultzatu gintuzten proposamena garatzen eta zuen aurrean aurkezten, denon artean topaketak errealitate egiteko gai izango ginela ondo baikenekien.

Antolatzaileon aldetik, ahalegin handia egingo dugu ekitaldi honetan ere partaidetza sustatzeko eta topaketen aurreko lanari zein topaketa beraiei kalitatez erantzuteko:

- Antzezlanak prestatzeko, **laguntza profesionala** jaso ahal izango duzue. Prestakuntza hau ikasleei zuzenduta egongo da, eskola orduetan ala kanpo (zuek erabaki), baina beti ikastetxeko **arduradun** batek hurbiletik jarraituta. Urriaren 26ko astean hasi eta emanaldiak eskaini bitartean izango dira saio hauek (60´ko iraupena gutxienez).
- Parte hartzen duten ikastetxeek/taldeek 100na euroko diru-laguntza izango dute eszenografia, janzkera aberasteko.

- Egitasmoa behar bezala ezagutaraziko dugu herrian: eskuorriak, kartelak, prentsa idatzia eta irratiak.
- Ibaiganeke Areto Nagusia behar beste egunez zabaldu eta prestatuko dugu, emanaldiaren aurreko egunetan entseguak egin ditzazuen, hala nahi izanez gero.
- Antzezlanaren grabazio banaz sarituko ditugu partaide guztiak.
- Partaideen eskola, elkarte, taldeei emanaldi guztien grabazioa eta argazki bilduma helaraziko diegu.

Eta zue, zer? Animatu eta **IRAILEAN** bidali euskarabilara parte hartzeko fitxa (euskarabila@topagunea.com), datu guztiak beteta. Urrian harremanetan jarriko gara prestakuntza saioak adostu eta dagokizuen diru-laguntza jaso dezazuen. Eta lanera!

Ibaiganeke Areto Nagusiko emanaldien datak aurrerago jakinaraziko dizkizuegu, baina aste santuko oporrak baino lehen izango direla ziur da, denon artean adostuko dugun egutegi eta ordutegiaren arabera.

Informazio gehiago behar izanez gero, deitu 627 349 053 telefono zenbakira edo bidali mezua (euskarabila@topagunea.com).

Animatu, ondo izan eta agur beroa,



## INFORMAZIO JAKINGARRIAK

Antzezlanen iraupena: 10´ gutxienez eta 30´ gehienez

Tokia: Ibaiganeke Areto Nagusia

Ordua: 17:00etatik aurrera

Egutegia: aste santua baino lehen, denon artean adosteko

Laguntza profesionala aukeran: urritik emanaldia egin arte

Diru laguntza: 100€ (urrian/azaroan jasoko duzue)

Epea: iraila



# ANTZERKI TOPAKETAK umeak eta gazteak 2010

## IZEN-EMATEA

Ikastetxea (edo elkartearen edo taldearen izena, ikastetxe batekoa ez bada)

Arduraduna \_\_\_\_\_ Tfnoa. \_\_\_\_\_  
e-posta \_\_\_\_\_

Antzezleak  
Kopurua \_\_\_\_\_ Adina \_\_\_\_\_

Laguntza profesionala nahi? Baiezko kasuan, eskola orduan  \_\_\_\_\_  
eskolatik kanpo  \_\_\_\_\_

Diru-sarrerara egiteko datuak

Ikastetxearen IFK/Pertsonaren NA \_\_\_\_\_

Kontu zenbakia \_\_\_\_\_

(pertsonaren izena eta bi abizenak, kontua ikastetxearena edo  
elkartearena ez bada: \_\_\_\_\_)

